

25 URTE



PREMIOS
**MANUEL
LABORDE
WERLINDEN**
SARIAK

OINARRIAK

“EKIMEN BERRITZAILE BERRIAK”

“GRADU AMAIERAKO LANAK - MASTER AMAIERAKO
LANAK - DOKTOREGO TESIAK”

"25. URTEURRENA" SARI BEREZIA



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



BIC
GIPUZKOA
UP! EUSKADI

MANUEL LABORDE WERLINDEN” SARIAK

UPV/EHU-Gipuzkoako Campusak eta BIC GIPUZKOAK, **ENTREPRENARI** Programaren bitartez, **“MANUEL LABORDE WERLINDEN” Sarien 25. edizioa** bultzatu dute. Programaren helburua pertsona ekintzaileak sustatzea, aholkatzea eta laguntzea da, baita UPV/EHUko Gipuzkoako Campusean enpresa berritzaileen sorrera sustatzea ere.

Esparru horretan, “Manuel Laborde Werlinden” sariak ekimen ekintzailea eta berrikuntza aintzatetsi nahi dituzte, berrikuntza zientifiko-teknologikoari eta unibertsitatearen ingurunean dagoen know-howak sortutako ezagutzari garrantzi berezia emanez.

Edizio berezi honetan, **Sarien 25. urteurrena** dela eta, **urteurrenako sari berezi** bat emango da, ekosistema ekintzaile eta berritzailean izandako ibilbidea eta inpaktua aitortzeko, bai eta **genero-berdintasunarekin, jasangarritasunarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin** duten konpromisoagatik nabarmentzen diren proiektuak aitortzeko ere.

Sariak honako hauen laguntza dute: **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO** Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua, **EUSKO JAURLARITZAKO** Industria, Energia Trantsizioa eta Iraunkortasuna Saileko Ekintzailetza eta Nazioartekotze Zuzendaritza eta **SPRI**.

ENTREPRENARI Programaren filosofiarekin bat etorritik, sariak eta horiek babesten dituzten erakundeek berrikuntzaren kultura finkatzen eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sarea sustatzen laguntzen duten proiektuak babesteko eta bultzatzeko konpromisoa berresten dute, unibertsitatearen esparrutik enpresa berriak sortuz.

Honako proiektu hauek hartuko dira berritzailetzat:

- Oinarri zientifiko-teknologikoa duten enpresa berriak.
- Ezagutza espezifikoan oinarrituriko enpresak, berriak diren sektoreetara zuzenduak.

Helburuak:

1. Unibertsitatearen ingurunean ekintzailetza arloko ideiak eta proiektuak sustatu.
2. Unibertsitarioen ahalmen berritzailea bultzatu, enpresa-ekimen berriak sortuz eta garatuz.
3. Ekimen berrien garapenean lagundu, baliabide ekonomikoak eta enpresak sortzeko eta kudeatzeko aholkularitza-zerbitzu adituak jarri.

Kategoria “Ekimen Berritzaile Berriak”

Norentzat:

- ✓ UPV/EHUko irakasleak, ikertzaileak/Ikerbasque.
- ✓ Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatutakoak edo haren titulu ofizial bat dutenak (lizentziatura, diplomatura, gradua, masterra edo tesia)
- ✓ Gipuzkoako Lurralde Historikoan enpresa proiektuak garatu eta martxan jartzeko asmoz UPV/EHUrekin lankidetzan egindako ikerketaren emaitzak ustiatzea erabakitzen duten enpresak.

Sariak:

- ✓ UPV/EHUren 7.000 €-ko ekarpena
- ✓ 60.000€-rainoko ekarpena, BIC Gipuzkoaren bidez, ideia irabazlearen bideragarritasun, garapen eta abiarazte-azterlana egiteko.
- ✓ Doako sarbidea urtebetez “Joxe Mari Korta” Zentroan dagoen “Inkubagailura –” Entreprenari Gunean.
- ✓ Sariari dagokion garaikurra.

Oharrak:

60.000 €-rainoko dirulaguntza lortu daiteke, ideia irabazlearen berrikuntza- eta interes-mailaren arabera.

Irabazleak “Inkubagailua-Entreprenari Gunean” eskatu beharko du lekua, saria eman eta gehienez ere 18 hilabeteko epean.

Espazioa erabilgarritasunaren arabera esleitu da.

Hautagaien balorazioa

Aurkeztutako proiektuak erakunde babesleek osatutako Epaimahai batek ebaluatuko ditu:

- ✓ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
- ✓ SPRI
- ✓ UPV/EHUko Gipuzkoako Campusa
- ✓ BIC GIPUZKOA.

Hala badagokio, aurkeztutako proiektuen gai tematikoetan adituak direnak Epaimahaian sartzea baloratuko da.

Jarraian aipatzen diren alderdiok hartuko dira kontuan bereziki:

- ✓ Ekimena sustatzen duen taldea.
- ✓ EHUren hedabideetatik ezagupen eskaintza.
- ✓ Produktu / Zerbitzu / Prozesuaren berrikuntza maila.
- ✓ Merkaturatzeko aukerak eta jarduera-sektorearen interesgarritasuna.

Aurkeztu beharreko agiriak:

1. Laburpen exekutibo bat erantsiko da, gehienik ere bi orrialde dituen, proiektuaren balore nagusiak azpimarratuz.
2. Proiektuaren gaineko justifikazio-txostena, sariaren antolatzaileek ezarritako ereduaren arabera. Aurkeztu beharreko dokumentuak, gehienez ere, 25 folio izan beharko ditu.
3. Ekimeneko ekintzaileen Curriculum Vitae-a.
4. Ikerketa-talde batek sustatu eta lagundutako proiektua bada, haren ikerketa-ildo estrategikoen laburpen bat aurkeztuko da.

Oharra: Proiektuaren memoria Sarien webgunean eskuragarri dagoen gidoiaren arabera egingo da. Aurkeztutako galdera guztiei erantzuteko heldze-maila nahikoa ez duten proiektuek informazio ziurra duten puntuak baino ez dituzte beteko

Kategoria "Gradu Amaierako Lanak - Master Amaierako Lanak - Doktorego Tesiak"

Norentzat:

- ✓ **2025-2026** ikasturtean Gradu Amaierako Lanak, Master Amaierako Lanak edo Doktorego Tesiak egiten ari diren edo **2023-2024 / 2024-2025** aldian aurkeztu dituzten ikasleak eta ikertzaileak, proiektuaren merkatu-aukerak aztertze eta, positiboa bada, gauzatzeko asmoa dutenak.
- ✓ Proiektuak indibidualak edo enpresarekin egindakoak izan daitezke, betiere enpresaren laguntza badute.

Sartzeko baldintzak

Ebaluazioaren xede den proiektua UPV/EHuren Gipuzkoako Campuseko Fakultate edo Eskoletako gradu edo masterreko ikasketen barruan edo, bestela, UPV/EHUK emandako Doktoregoko ikasketen barruan garatu izana.

Sariak:

- ✓ UPV/EHuren **3.000 €**-ko zuzkidura eskudirutan, dirulaguntza eman eta hurrengo sei hilabeteetan aurrebideragarritasun-azterketa egiteko, kontzeptu hauetan:
 - Aholkularitza teknikoko/teknologikoko eta/edo prototipoko gastuak.
 - Ekimenaren aurrebideragarritasuna analizatzeko eta negozio-eredua zehazteko gastuak.

Aurrebideragarritasun-azterketa egiten den bitartean, BIC Gipuzkoa azpiegitura operatiboa eta aholkularitza izango da.

Aurrebideragarritasun-azterketa ontzat ematen bada, proiektuak aukera izango du 60.000€-rainoko ekarpena izateko BIC Gipuzkoaren bitartez, saritutako ideiarekin bideragarritasun, garapen eta abiarazte-azterlana egiteko.

- ✓ Sariari dagokion garaikurra.

Hautagaien balorazioa

Aurkeztutako proiektuak erakunde babesleek osatutako Epaimahai batek ebaluatuko ditu:

- ✓ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
- ✓ SPRI
- ✓ UPV/EHUKo Gipuzkoako Campusa
- ✓ BIC GIPUZKOA.

Hala badagokio, aurkeztutako proiektuen gai tematikoetan adituak direnak Epaimahaian sartzeari baloratuko da.

Alderdi hauek bereziki baloratuko dira:

- ✓ Planteatzen den produktuaren/zerbitzuaren berrikuntza-maila / aukera potentziala.
- ✓ Proiektuaren kalitatea.
- ✓ Ikaslearen profila eta ekiteko motibazio-maila.
- ✓ Proiektua zuzentzen duten irakasleen iritzia.
- ✓ Enpresaren babesa eta inplikazioa, enpresek planteatutako proiektuen kasuan.

Aurkeztu beharreko agiriak:

1. Laburpen exekutibo bat, gehienez bi orrialdekoa, parte-hartzaileak Sarietara aurkezteko dituen motibazioak azalduko dituen.
2. Proiektuaren gaineko justifikazio-txostena, sariaren antolatzaileek ezarritako ereduaren arabera. Aurkeztu beharreko dokumentuak, gehienez ere, 25 folio izan beharko ditu.
3. Enpresarekin lankidetzan egindako proiektuen kasuan, aurkeztu beharreko dokumentuan enpresak proiektuarekiko duen jarrera azalduko da (interesa, lankidetzeta-modalitatea).

Oharra: Proiektuaren memoria sarien webgunean eskuragarri dagoen gidoiaren arabera egingo da. Aurkeztutako galdera guztiei erantzuteko heldze-maila nahikoa ez duten proiektuek informazio ziurra duten puntuak baino ez dituzte beteko.

"25. urteurrena" sari berezia

UPV/EHUren **sari berezia**, **3.000 €** eskudirutan. Sari hau oinarri hauetan jasotako bi kategorietako edozeinetan aurkeztutako hautagaietako bati eman ahal izango zaio.

Sari gehigarri horrek bereziki aintzat hartuko ditu, deialdiaren helburuak betetzeaz gain, honako alderdi hauetakoren batekiko konpromisoa nabarmen erakusten duten proiektuak:

- Genero-berdintasuna. Proiektua diseinatzean eta gauzatzean genero-ikuspegia kontuan hartzea balioetsiko da, bai eta emakumeen parte-hartzea eta lidergoa bultzatzeko neurriak ere.
- Jasangarritasuna eta ingurumenarekiko errespetua. Bereziki baloratuko dira baliabide naturalen erabileraren eraginkortasuna, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, produktu edo prozesu zirkularren diseinua eta klima-aldaketa arintzeko ahalmena.

Epaimahaiak hautatuko du aparteko sari hori merezi duen proiektua, eta proposamen finalisten multzoaren barruan merezimendu gehigarri gisa baloratuko du aipatutako arloetako inplikazio-maila.

Sari hau emateak ez du baztertzen, gainera, kategoria bakoitzean ezarritako sari nagusiren bat jasotzeko aukera.

Aurkeztu beharreko agiria:

Aurkezten deneko kategoria zehatzerako eskatzen diren agiriekin batera, deskripzio-memoria bat aurkeztu beharko da, honakoak zehaztuz:

- Nola txertatzen den genero-ikuspegia proiektuaren diseinuan eta gauzatzean, eta zer neurri ezarri diren emakumeen parte-hartzea eta lidergoa bultzatzeko.
- Iraunkortasun-estrategiak eta ingurumen-errespetua (baliabideen eraginkortasuna, ekonomia zirkularra, klima-aldaketa arintzea, etab.).

Oharrak:

- “Ekimen berritzaile berriak” kategorian, proposamena talde sustatzaile batek aurkezten duenean, talde horrek pertsona bat izendatu beharko du sarituak aukeratzeko prozesuan ordezkari gisa aritzeko.
- Epaimahaikideek konfidentzialtasun osoz tratatuko dituzte aurkeztutako proiektuak.
- Sarien epaimahaiak informazioaren hedapena eskatuko du eta/edo egoki deritzon partaideekin elkarrikeria pertsonalak edukiko ditu.
- Proiektu finalistek beren hautagaitza defendatu beharko dute Epaimahaiaren aurrean.
- Epaimahaiak ez du bere gain hartzen aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizunik, eta, saria dela-eta, engainurik edo hirugarren aldeekiko eraginik atzemanaz gero, ekintza egokiak gauzatzeko ahalmena izango du.
- Komunikabideei dagokienez, antolatzaileek proiektu finalistekin adostuko dute haiek publiko egin nahi duten informazio-maila.

Hautagaitzak aurkezteko epea

Hautagaitzak aurkezteko epea: **2025eko azaroaren 3an, 23:59etan.**

Hautagaitzak web orriaren bidez www.entreprenari.com erregistratu behar dira, eta erregistratzeko unean dagokion kategoria hautatu behar da.

Sariari buruzko kontsultak hemen egin daitezke:

ENTREPRENARI GUNEA – Aula BIC

Joxe Mari Korta zentroa
Tolosa hiribidea, 72,
20018 Donostia
Harremanetarako pertsona: Karmele Arozena
943 015 473 / 616967237
entreprenari@entreprenari.com – karmele@bicgipuzkoa.eus

GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA

Arriola pasealekua, 2 (Julianategi)
20018 Donostia
Harremanetarako pertsona: Aitzol Ezeiza aitzol.ezeiza@ehu.eus

Sariak emateko eguna eta lekua

Eguna: 2025eko azaroaren 28a

Lekua: Carlos Santamaria Zentroa – Gipuzkoako Campusa
Elhuyar plaza, 2 - Donostia